

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2540

IRAGARKIA, 2024ko maiatzaren 9koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Arabako Aramaio eta Legutio, eta Gipuzkoako Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga udal-mugarteetan, «Jarindo» parke eolikorako alde zuzeneko administrazio-baimenaren eskaera.

Maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuak 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), «Jarindo» parke eolikorako aurkeztutako alde zuzeneko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

- Eskatzailea: Green Capital Power, S.L. (IFK: B85945475).
- Tartean dauden udal-mugarteak: Aramaio eta Legutio (Araba) eta Eskoriatza eta Leintz-Gatzaga (Gipuzkoa).
- Haize-sorgailuen kopurua: 4.
- Instalatu den potentzia gordina: 20 MW.
- Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

Poligonalaren UTM koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
A	533.473	4.758.105
B	533.145	4.759.151
C	533.015	4.759.274
D	532.664	4.759.376
E	532.208	4.759.703
F	531.898	4.760.534
G	531.755	4.761.273
H	531.963	4.761.560

Poligonalaren UTM koordenatuak (ETRS89 HUSO 30)		
Erpina	UTM x	UTM y
I	532.362	4.760.914
J	532.716	4.760.062
K	533.145	4.759.601
L	533.532	4.759.359
M	533.746	4.758.220

Horiguztia argitaratzen da, eta hogoieguneko epea ematen da, iragarkihau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Arabako Industria Administrazioaren Lurralde Ordezkaritzan, izapidetze elektronikoen plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen: <https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu>

Vitoria-Gasteiz, 2024ko maiatzaren 9a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.